

Txirritak



Joxemari CARRERE
Ipuin kontalaria

Ezaguna da oso "Inurria eta Txirritak"-ren fabula. Inurri langileak udan janaria bilduko du neguan gosez ez hiltzeko. Txirritak, berriz, uda kantari pasako du, eta negua heldutakoan ez du jatekorik izango. Samaniego arabarraren fabulak lanaren eta prebisioren goraiapmena egiten du; artistaren alferkeria gaitzetsiz. Alabaina, galdera datorkit burura: inurri langileak, negu gorrian inurritegian gordeta, jan eta

lo besterik ez zuen egiten?

Euskal bertsoari emandako erreferenterik handienetakoa Jose Manuel Lujanbio "Txirritak" da; bertso sortzaile aparta. Alfer handiaren ospea ere bazuen; baina gure aitona, langile porrokatua, buruz zekizkien haren bertso asko. Base-rietako negu gauetan kontatzen ziren ipuinak gabe bitzta latzagoa izango zen.

Txirritaren kanturik gabe inurriaren bitzta askoz ere aspergarriago eta tristea

izango zen, ez bairik gabe. Zertarako sortzaileak zaindu? Liburu batekin gozatzean, antzezlan batekin liluratutakoan, aspaldi zaharrean gertatutako ipuin batekin harritzean edo kantuan eta dantzan aritzean, gogoratu horren sortzaile bat dagoela, txirrita bat, udan ez ezik, urte osoan lanean diharduena guztion gozamenarako. Zarautzen, Lanartea sortzaileen elkarrekin "Inurria tirrikittaka" ageraldiarekin erakutsiko du hala dela.

Hilekoa ardatz, Goiatz Labandibarren gazte literaturako lehen eleberrian: «Putzua»

Goiatz Labandibarrek gazte literaturako bere lehen eleberria argitaratu du, "Putzua" (Erein). Neska nerabe baten esperientzia kontatzen du, baita haren ingurukoena ere: Lagunek ba ote dute hilekorik? Zer ote daki bere lagun Xabatek hilekoari buruz? Aitari kontatu nahi al dio? Nolakoa izan zen amonaren lehenengo hilekoa?


Iraitz MATEO | DONOSTIA

«Ume izatetik nerabe izatera pasatzen ari den neska baten istorioa da 'Putzua', azaldu zuen atzo Goiatz Labandibar idazle oiartzuarrak liburuaren aurkezpenean. Laure da haurtzarotik nerabezarora doan protagonista, eta bere lehen hilekoa duen eguna kontatzen da ehun orrialdetan.

Irakurleak Labandibarren eleberri berria gazte literatura-renalapategian aurkituko badi ere, irakurle asko izan ditzakeela esan zuen Inazio Mujika Ereineko kideak. Izan ere, bere ustez, hainbatetan isildua izan den gaia da hilekoarena, eta lehen aldiz hilekoa duten nerabeez gain, horien lagunei zein gurasoei lagun diezaieke liburuak. «Hilekoarena ez da gai bakarra, harremanak ere jorratzen dira; komunikazioa edo inkomunikazioa azken finean», azaldu zuen Mujikak.

Egun bakarra kontatzen du narrazioak, Laureri hilekoa etorri zaion eguna. Baina egun horretako «sentimendu koktela» zabala eta askotarikoa izanik, horiek denak bildu nahi izan ditu idazleak. Hilekoa «gauza fisiologiko-biologikoa izateaz gain konnotazio soziologiko handikoa da», azaldu zuen Labandibarrek, eta koktel horri nola aurre egiten dion protagonistak jaso du berak liburua.

Mezu positiboa duen istorioa da, Labandibarren esanetan, horrelako gaiek ikuspegi



Labandibarrek atzo aurkeztu zuen Donostian bere lan berria. Andoni CANELLADA | FOKU

hori ere landu behar baitute, bere ustez; eta zuzenki ahizpatasunari eta laguntasunari loturikoa: «Ahizpatasunari dagokionez, amak, ahizpak eta amonak ere presentzia handia dute; beraiek ere hilekoa nola bizi duten jakin nahi du Laurerik. Eta, bestetik, laguntasunaren garrantzia ere oso garrantzitsua da; beraien harremanak aldatzen ari dira».

Kuleroak odolez zikinduta ikusirik, Laurek zalantzak eta beldurrak ditu, «sentimendu koktel» handi batean dago, ez du kontatu nahi. Abiapuntua

hori izanik, alde positiboa gailentzeko ahalegina ere egin du idazleak: «Laurek hilekoarekin bizitzen ikasiko du, baita hilekoari buruz hitz egiten eta are, ospatzen ere».

Nerabeen errealtatetik gertu «Idatzi dut neska nerabeentzat, baina ez dut neskenzat bakarrik idatzi, hilekorik ez dutenentzat ere bada, eta inoiz izango ez dutenentzat; beraiek ere Laureren azalean jartzeko ariketa bat da», adierazi zuen Labandibarrek. Baina gazteen-entzatez gain, helduentzat

ere badela uste du; izan guraso, irakasle edo hezitzaile: «gazteen bidelagun izatea ere badagokigulako».

Gazteek hilekoa gaur egun nola bizitzen duten galdetu du inguruan idazleak, irakasleei batez ere, gazteen errealtatera ahalik eta gehien hurbildu nahi izan baitu. Horretarako, nerabeen hizkera ere erabili du. Aitortu zuenez, bere oroitzen eta bizipenetatik ez da gehiegi aldatu lehen hilekoaren esperientzia, «lotsak, ezezagutzak, sineskeriak... berdin jarraitzen du».

EMOZIO KOKTELA

Hilekoa etortzen zaion lehenengo eguneko gorabeherak dira narrazioaren ardatz nagusia, baina lagunarteak edota ahizpatasunak ere hartzen dute nahikoa presentzia. Egungo nerabe baten ikuspegitik idazten ahalegindu da.

Mujikaren iritziz, liburua-zen azalak ere arreta emango du. Hanka batzuk ageri dira komunean eserita, kuleroak odolez zikinduta eta lorez beterik, eta izenburua behealdean. Azala Ane Narbarteke odolez zikinduta eta lorez beterik, eta izenburua behealdean. Azala Ane Narbarteke odolez zikinduta eta lorez beterik, eta izenburua behealdean. Azala Ane Narbarteke odolez zikinduta eta lorez beterik, eta izenburua behealdean. Azala Ane Narbarteke odolez zikinduta eta lorez beterik, eta izenburua behealdean.